

ZAM

ZORROTZ MORROTZ

61. ZBKIA. 2020ko URTARRILA

JOSÉ ANTONIO LATORRE

ATHLETIC CLUBEKO FUTBOLARI OHIA

ZORROTZA FUTBOL CLUBEKO KROMOEN BILDUMA

Zorrotza

æk

Zalbidea 7
94 441 49 20
zorrotza@æk.eus
www.æk.eus

10-18 urte dituzu?

harrapa zank

Bilboko artista gazteentzako talentu lehiaketarik dibertigarrienean parte-hartu nahi duzu? prestatu zure ikuskizuna eta 500 euroko saria eraman!

eta...esperientzia berriak bizitzea gustoko baduzu eman izena Harrapazank Arratsaldetan eta probatu: teknologia, sorkuntza, dantza, urban artea...

Izena ematea www.harrapazank.eus gunean urtarpilaren 7tik otsailaren 28ra

iKasi
Mi Kasi!

0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa, ikastetxe publikoetan eta Zorrotzatik irten gabe

 **CEIP ZAZPI LANDA-ZORROZGOTTI ILLHI**
Pinadia etxaldea, 6. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 48 75 • ☎ 94 442 48 75
✉ sietecampas@gmail.com

 **CEIP ZORROTZA-FRAN JUAN ILLHI**
Ikastalde ebzaldea, 12. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 442 00 21 • ☎ 94 442 00 21
✉ 014159aa@hezkuntza.net

 **I.E.S. ZORROTZA ILLHI**
San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza, Bilbo
☎ 94 439 33 34 / 688 861 374
☎ 94 439 97 41
✉ 015078aa@hezkuntza.net
www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net

Urte berria, tinkotasun bera

Lehenik eta behin, urte berri on opa dizuegu. Urte berri batez gain, hamarkada berri bat ere hasi da, eta Auzo Elkartearen 50.urteurrena ospatu ondoren hemen jarraitzen dugu gure auzoaren alde lan egiteko gogoz.

Umiltasun eta ilusioz lan eginez gauza asko izan dira lortu ditugunak eta ilusio eta konfidantza horrekin aurrera jairraituko dugu Zorrotzak ez duelako gutxiago merezi.

Gure aurrean erronka handiak ditugu, baina ziur gaude lan, seriotasun eta tinkotasunarekin hauek garaitzea lortuko dugula.

Auzo Elkartetik auzoko eguneroko giza-bizitzan, jarduera eta aldarrikapen adierazpenetan parte hartzera animatzen zaituztegu.

Gure aldetik, lortu nahi ditugun helburuak betetzeko emandako pauso guztietaz informatzen eta hausnartzten jarraituko dugu azken xedea zorrotzar guztiontzako auzo hobea bat lortzea izanik.



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoko bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora, gaiaren laukian "harpidetza" jarriz



Zorrotzako kultur aldizkaria
61. zenbakia. 2020ko urtarrila

Argitaratzen du:

Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia

Zalbidea, 7 beheko

48013. Zorrotza. Bilbo

Emaila: zmorrotz@gmail.com

facebook.com/ZorrotzMorrotz

[@zorrotzmorrotz](https://twitter.com/zorrotzmorrotz)

Koordinazioa: Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:

- Ibai Barrios
- Ainara García
- Igor Gutiérrez
- Aitor Marín
- Naroa Peña
- Iratze Pérez
- Zuriñe Vila

Zuzenketak: Iñigo

Laguntzaileak:

- Karlos Rodríguez
- Manu Cobo
- Asier Urkiza
- Iraitz Zuloaga

Inprimaketa: Arin Graf



Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du baina ZM da edukia erantzule bakarra



BAR VENECIA
Especialitateak:
Kafea, tortilla, tortilla beatek eta bestelako pintxoak
Abaro estrata 10
AUPA ATHLETIC

Zorrotzako labea
Zugandik gertu
Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfn. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO

cafe txinbo
Especialitateak:
Tapak eta errazioak
Kanapeak
 Abaro estrata. 10
Tel. 94 608 85 74

Regalos Omega
oparidenda
Fraia Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza
94 482 03 66
www.omegadelles.com

Garabia eta Udal Ibilgailuen biltegia Zorrotzako Muturrera ekarri dute



Zorrotz Morrotz

Garabiaren eta Bilboko Udaleko Ibilgailuen Gordailuaren instalazio berriak Zorrotzako muturrean egokitu dira abenduaren 10etik, hiltegi zaharraren orubean. Lekualdaketa honek bi helburu bete ditu udalaren arduradunek azaldu dutenez: batetik, ingurune honetan ibilgailuen zirkulazioa handitzea, zonari dinamismoa emateko. Bestetik, garabiak autoa kendu dien pertsoneri aukera emango zaie garraibide publikoan joan daitezen autoaren bila, trenez nahiz Bilbobusez.

Hori lehen, Zorrotzaurren, ezinezkoa zen. Ibilgailuen eta pertsonen zirkulazioa areagotuz, zonaldearen segurtasuna hobetzea ere aipatu zen hona ekartzeko arrazoiaren artean.

Instalazio hauek egokitzeko obrek 4 hilabete iraun dute. Guztira 1.300.000 euro gastatu du Obretako eta Hiri Plangintzako Sailak. Instalazio berriek 18.069 metro karratu dituzte eta guztira 475 ibilgailu hartu ditzakete (5 x 3 metroko partzeletan): aurreko ibilgailu-gordailuan baino 25 plaza gehiago daude. Gainera, 8 garabirentzako espazioa dago (7 x 3 metroko partzelak), langileentzako 10 aparkatze plaza, bizikletak eta motozikletak gordetzeko esparru bat, 600 metro karratukoa, eta autoak garbitzeko leku bat. Zerbitzu horiek guztiak 2 plataformatan banatzen dira, metro bateko kota-diferentziarekin, eta 3 arropalari konektatuta daude: 2 oinezkoentzat, bulegoen eraikinerara ematen dutenak, eta 1 ibilgailuentzat.

Horrez gain, bi eraikin aurrefabrikatu ipini dira: bata bulego eta aldageletarako, eta bestea biltegirako eta erreminta-gelarako. Ur, saneamendu, elektrizitate, argiztapen publiko, segurtasun eta sarbide-kontrolako instalazio egokiak daude.



Bertso afari jendetsua Euskararen Eguna ospatzeko

Igor Gutiérrez

Azaroaren 29an, auzoko euskaltzaleok urtero legez elkartu ginen, Euskararen Eguna aitazkia. Mahaiaren inguruan jarrita, bapo afaldu, solas egin eta ondorengo bertsoez gozatu genuen. Onintza Enbeita eta Nerea Ibarzabal bertsolariak ondo baino hobeto aritu ziren mahaikideek proposaturiko gaiak jorratzen eta ordu txikitan bukatu zuten. Bejondeigula eta urte askotarako!

Argazkineta Show, oroitzapenez betetako arratsaldea

Iratze Pérez

“Argazkineta show: bilketa ostean, kontaketa” deitutako ekitaldia izan zen abenduaren 17an elizan, garai bateko auzoaren kontakizuna modu kolektiboan arratsalde batez eraikiz. Ekitaldiaren helburu nagusia Argazkinetak bildutako materiala aurkeztea izan zen. Horrez gain, Zorrotzako bizilagunen memoria eta kontakizunak bildu eta Argazkinetari informazioa eta materiala eman dion jendearen partaidetza txalotzea ere bai. Guztira, Zorrotzako auzokideek Argazkineta furgonetera 1228 artxibo eraman zituzten eta modu digitalean udal artxiboan gordeta geratuko dira, auzokide guztien eskura.

Osasun zentroak pediatria zerbitzua berreskuratu du

Zorrotz Morrotz

Auzo Elkarteak komunikatu baten bidez eza-gutzera eman du abenduaren 23tik aurrera auzoko osasun-zentroak Jose Luis pediatria-ekin zuen pediatria-zerbitzua berreskuratu duela. Elkarteak jakitera eman duenez, orduegian aldatketak daude: Nekane pediatriak 08:00etatik 14:00etara luzatuko du bere lanaldia asteleheneretik ostiralera; 14:00etatik 17:00etara, ostera, Alonsotegirekin partekatuko dugun pediatria izango dugu. Pediatrian trebatutako erizainek osatuko dute zerbitzua kasu bietan.

Lorpen hau auzotar guztion borrokari esker, eta Osasun Zentroaren muintetik egindako lan handiari esker izan dela posible argi utzi nahi izan du Auzo Elkarteak. Ongi etorria ere eman dio elkarteak Maria Osorio doktore berriari, eta era berean, urteetan eskainitako arreta eskertu dio Jose Luis jubilatu berri den pediatriari.



Horrela, Zorrotzako portua, Azoka parkea, La Base, hiltegia, bolatokia eta aisialdirako espazioak eta eraikin paradigmaticoak gogora ekarri ziren. Ekarpen pertsonal adierazgarri bezala, besteak beste, auzoko irratik libreko sortzailea eta Zorrotzari buruzko liburuaren egilearen testigantza eman zen. Honetat aparte, interes bereziko pertsona askoren istorioak entzuteko aukera izan genuen.

Bilboko Udalak “Aire Garbia” saria jaso izana kritikatu dute

Aitor Marín

“Inuzenteen Eguna aurrerapena” deritzo Auzo Elkarteak *X Aire Garbia* plataformak antolatutako *I. Aire Garbia Saria* Bilboko Udalak jaso izanari. Sare sozialetan argitaratutako ohar baten bidez gogor kritikatu du “asmatutako tiringitoen propagandaz baliatzen direla udal arduradunak hiritarron bizi kalitatea ez hobetzeko”. Saria ematen duen plataformaren arabera, aldiz, ehun mila biztanletik gorako hirien artean, bertako herritarrek arnasten duten airearen kalitatearekiko konpromiso handiena duena da Bilbo.

Elkarteak oharrean, bere buruari galdetzen dio nola den posible hondakinen erraustegi bat duen hiri bat saritzea, dioxina eta furano arrisksutsuez gain, CO2 gehien isurtzen duen EAE osoko 5 enpresetako bat baita. Gainera, gogorarazi dute Zorrotzako bizilagunok Sader lantegi kutsatzailearen gai kimikoz betetako kea arnasten jarraitzen dugula.

Egitarau oparoa Gabonak auzoan ospatzeko



Igor Gutiérrez

Jarduera mordoia izan dugu auzoan Gabonak ospatzeko. Hasteko, Auzoka Komunitate Zentroaren 2. urteurrena izan genuen, abenduaren 13an: antzerkia, erakusketak eta bukatzeko, jam session bat. Hurrengo astean, Ibai-Arte taldeak dantza emanaldi ederra eskaini zigun frontoian, Gabonetako oporrei hasiera emateko.

Abenduaren 24an, berriz, Olentzero eta Mari Domingirekin kantu eta dantzan ibili ginen, Nagusien Egoitzan hasi eta auzoari bira emanez. Iluntzean, berriz, Gabonetako ipuin bati jarraiki, parkerainoko bidea hartu genuen, eta bertan umeek Olentzero eta Mari Domingiri gutunak emateko aukera izan zuten.

Abenduaren 27an berriz, Txinbotarrak konpartsak gaztain erreen banaketa egin zuen eta, ondoren, dantza-kalejira jendetsua abiatu zen, iluntzeko hotzari aurre eginez.

Urte berriarekin, gozogintza tailerra egin zen Gaztegunean eta, hilaren 4an, urtero legez, Erregeen kabalgata, Merkatari Elkartearen eskutik. Eta hori ez da guztia, baina ez dago guztirako lekurik... Urte berri on!



Zorrotzako portuko azken zamaketa-garabia erosi du Bilboko Udalak

Zorrotz Morrotz

Bilboko Udalak izango du Zorrotzako portuan geratzen den azken garabiaren titulartasuna.

Bilboko portu-jardueraren azken aztarna gisa, Zorrotzako Auzo Mugimenduak karpina bati ekin zion 2012an, azken estibatzegarabi hori, kaian bakarrik zegoena, eraistetik salbatzeko bere kultura-balioaga-

tik, Molinos Vascos eta Cordeleriaren eraikinarekin batera garabia mantentzeak zuen garrantziaz jabetuta. Zazpi urte geroago, Udalak argitu du portuko jarduera etetearen ondorioz Portuko Agintaritzari erositako jabetzen barruan dagoela garabia, eta mantendu egingo dutela.

Udal agintariek azaldu dutenez, Portu Agintaritzari erositako jabetza guztien zenbatekoa, guztira, 13 milioi eurokoa da.


Pinadia etxaldea

Etxe talde honek, Atxa sendiako zan pinudiaren izena hartu dau, Zazpi Landa eta Mendigain etxalde tartean kokatzen dala.

Bolerako argazkian ikusten dan atzeko pinuek ziran. Garaiko larretako jabeak, itxas pinue (pinus pinaster), gogorra izanda geure lurretan ondo baino hobeto mantentzen ziren.

Beste argazkietan, agertzen dira mehatzetako baldeak, auzoko aintzineko beharrak eta gaztentzako joku arrisku txuek gogorazten doskuenak (ohitura zan balde gainera igotzea siebean eta pinadian burue bota.... gizon handi bat zegoelako kargaderoan, makil bategaz, botatzen ez zana kolpatzeko.....), pinudiaren goiko aldetik jeisten ziren, kargaderorantza.

Fraijuaneko argazkian, sakoan ikusten dira, larrak besteri ez egozan garai haretan gunetik at...



ZORROTZA HERRIGINTZAN



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

“ Errezagoa da hemen zure bizitza profesionalen aurrera egitea, askoz aukera gehiago baitaude ”



KEPA CANTERO

Bizitokia: Munich (Alemania).

Noiztik: 2016. urtetik.

Adina: 38 urte.

Langbidea: Ingeniari informatikoa

Unibertsitateko ikasketak bukatu eta 2 urte igaro ostean Poloniara joan zen Kepa Cantero lanbide aukera hobe baten bila. Krakovian 4 urte pasa zituen eta duela 3 urte Munichera joan zen bere bizitza profesionalen gora egin nahian.

Naraoa Peña eta Zuriñe Vila

Nolatan eta zergatik joan zinen Alemaniara?

Duela 10 urte lehendabizi Krakoviara joan nintzen lan egitera. Lau urtez egon nintzen bertan enpresa handi batean lanean baina heldu zen momento bat non beste herrialde batera joan nahi nuen eta Alemania aukeratu nuen lan-aukera anitzak dituen herrialdea delako. Alemania barruan Munich hirira joatearen erabakiaren arrazoia batez ere Bilbo eta Munich artean hegaldi zuzenak daudela izan zen. Behin herrialdea aukeratuta interneten bilatzen hasi nintzen eta bertako enpresa handi batean, BMWn, lan eskaintza bat topatu nuen, mailetak hartu eta hara joan nintzen.

Oso ezberdina da hango bizimodua, edo aukokoaren antzekoa da?

Bai, oso ezberdina da. Batez ere egunero-ko bizitzan. Hemen aukokideekin harremana izatea da ohikoena. Han, ordea, nik ez ditut nire aukokideak ezagutzen. Horretaz gain, zerbitzuak oso zentralizatuta daude hiriko erdigunean. Auzoetan soilik supermerkatu bat, eliza eta metro geltokia daude, beraz, “kalean” egiten den bizitza eskasa da.

Gogorra egin zitzaizun bertako lan eta bizi ohituretara moldatzea?

Bai, noski, gaur egun oraindik gogorra egiten zait. Ni Alemaniara alemaniera jakin barik etorri nintzen, beraz, lehenengo hila-

beteetan ez nintzen ezertaz ohartzen. Hori dela eta, burbuila batean bizi nintzen non batez ere nire hizkuntza edo askoz jota ingelesa hitz egiten zuten pertsonekin soilik harremantzen nintzen.

Zer da handik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Gutxien gustatzen zaidana da haien lanerako kultura. Astean zehar daukadan sentazioa da soilik lan egiteko helburuaz bizi naizela. Ostiralean lur jota nago. Bestalde, gehien gustatzen zaidana da bertan dauden lan aukera anitzak. Nik azkenengo hiru urteetan mundu mailan garrantzi handia izan duten proiektu ezberdinetan parte hartu dut eta ez da ni berezia naizelako; bertan, gogoia eta interesa erakutsiz gero hemen baino askoz errazagoa da zure bitzita profesionalean aurrera egitea, askoz aukera gehiago baitaude.

Zorrotzara askotan bueltatzen zara?

Urtean behin gutxienez etortzen saiatzen naiz. Azken finean hona etortzeak nire opor egunak erabiltzea suposatzen du eta nahiz eta etxean oso gustura egon, bidaiatzea ere oso gustukoa dut, eta orduan, opor egunak banatu behar ditut bi gauzak egin ahal izateko.

Atzerrian zaudenetik zerbait sumatu izan duzu faltan?

Familia eta lagunak. Nik hamar urte eman ditut jada atzerrian eta gero eta zailagoa egiten zait aireportuan nire gurasoak agurtu beharra.



Eta bukatzeko, Zorrotzara berriro bizitzera bueltatzeko asmoa duzu edo han geratuko zara betiko?

Nire lanbidea oso espezifikoa da eta hemen horrelako lanpostu bat aurkitzea zail ikusten dut, baina antzeko lanpostu bat aurkituko banu duda bari bueltatuko nintzateke. Hala ere, nire helburua, Bilbon ezin badut, estatuko hiri batean behintzat bukatzea da.



**ESKAINTZA
PROGRESIBOETAN**

**ARMAZOA +
KRISTALAK** GOI-
GAMAKOAK

265€

Sustapena indarrean + 4,00 esferako eta
-2,00 zilindroko arteko graduazioetarako
RPS: 213/18


ibarretaluxury
OPTICA ★

Restaurante
Arsenio

Tfno. 94 497 10 03
Clara Campoamor, 6
48013 BILBAO

*Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarnez)
Eguneko menua*

Zorrotza Futbol Club taldeko jokalari eta kideak, kromo bilduma baten protagonistak



300 kromo baino gehiagok osatzen dute Zorrotza Futbol Taldeko kide eta maila guztietako jokalariak protagonista dituen bilduma. Abenduan hasi zen salmenta eta martxora arte izango dute bildumagileek osatzeko epea. Bultzatzaileak pozik agertu dira kasu askotan bildumaren protagonistak bildumagile bihurtu dituen ekimen honen emaitzarekin.

Testua: Iraitz Zuloaga
Argazkiak: Naroa Peña

Pasa den abenduan Zorrotza Futbol Taldeko kromo bilduma jarri zuen abian, 300 kromo baino gehiagoz osatutakoa. Bilduma honetan taldean dauden maila guztietako jokalari guztiak agertzen dira: txikien taldea, aurremetxoena, umetxoena, umeen bi taldeena, gatzetxoena eta seniorrena. Baina argazki hauetaz gain, klubeko zenbait argazki historiko ere topa daitezke, hala nola, San Mamesen eta Anoetan jokatutako partidena.

Albumak eta kromoen sobreetan ateratzen diren sariak Picos burdindegian har daitezke. Sobreak ordea, Magia gozokidendan, Madness tabernan, Askabiden, Panaderia Arizen eta Ordeñana kioskoan eskura ditzakegu euro baten truke. Sobre bakoitzak euro bat

balio du, eta sei kromo ditu barruan. Bilduma bukatzea errazteko, albumak banatu ziren lehenengo astean; eskaintza berezia egon zen kromoen sobreak erosteko: 25 sobre 20 euroren truke, eta kromo guztiak ezberdinak izanda, hau da bat ere ez zela errepikatuko ziurtasunarekin. Bilduma osatu ahal izateko kromoen sobreak martxora arte egongo dira salmantan, eta osorik bukatuko dutenen artean telebista eta Play Station bana zozkatuko dira.

Egitasmo honek, alde batetik, futbol taldea diruz laguntzea dauka helburu. Zorrotza FC haien bazkideek eta auzoko komertzioek ematen duten diruz mantentzen den kluba izanik, bestelako finantziazio mota batzuk bilatzeko beharra genuen. Bestetik, klubak duen historia luzeari errepaso laburra egiteko



helburua ere badu. Zenbait argazki historiko sartu dira kromo moduan, 1929an jokatzen zuten jokalariaik, San Mamesen jokatu ziren kopa ezberdinetako finalak eta hirugarren mailan aritutako denboraldiak, besteak beste.

Leonardo Cilaurreni ere atal berezi bat eskaintzea erabaki dute egitasmo honen antolatzaileek, Zorrotza FCn eta gure auzoan egon den jokalariai garrantzitsuenetakoa izategatik. Eta bukatzeko, agian helbururik ga-

rrantzitsuena umeen ilusioa izan da, haien burua kromoetan ikusteagatik, nahiz eta zailtzan izan nortzuek duten ilusio handiagoa: umeek ala gurasoek.

Urtarrilean kromoak aldatzeko elkarretaratze bat egin zen parkean, eta klubeko zuzendaritzak iragarri duenez, otsailean zehar besteren bat egiteko asmoa dago. Bestalde, eta egitasmoaren arrakasta ikusirik, seguruenik urte gutxi barru beste bilduma bat egitera animatuko direla baieztatu dute.



Zorrotza Kastrexana, 7
Telefona: 94 441 64 86



Pintxo askotarrikonk, hamburgesak eta sandwichak
Bazkarriak eta aforriak (erreserbatu behar da)
Aroa onak, konbinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao



ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!

JOSE ANTONIO LATORRE BEASKOETXEA: Athletic Clubeko futbolari ohia

“ Oso harro nago Athleticen aritu nintzen bitartean ingeniari-tza ikasketak bukatzeaz ”

78 urte bete berri ditu lanagatik duela 40 urte baino gehiago Gasteizen bizi den Jose Antonio Latorre zorrotzar peto-petoak. “Nire NANean urtetan jarri zuen nacido en Zorroza, Provincia de Vizcaya”, harro kontatzen du. Auzoan hasi zen futboleko jokatzeko lagunekin, eta 18 urterekin Athleticen sartu zen profesional aritzeko, eta ez zen nolana hiko jokalaria izan: Athleticen sei urte eman zituen (klubaren historiaren 2000. gola sartuta gainera) eta Sabadell CFn beste hiru urte. Futbolak ingeniari-tza ikasketak burutzeko aukera ere eman zion. Gasteizen berarekin hizketan egon gara.



Zorrotzan jaio zinen 1941ean. Zer oroitzapen duzu auzoaz eta haurtzaroaz?

Haurtzaroko oroitzapen bikainak ditut. "Echevarría" lantegiko etxeetako batean (Ignacio Miranda auzunea) jaio nintzen, 11. zenbakian. Denetarik genuen faltan garai hartan, baina kuadrilla giro ederra zegoen. Une oro futbollean aritzen ginen, poz-pozik.

Eta auzoan hasi zinen futboleko orduan.

Zorrotza Kastrexana errepidean bertan futbol zelai modukoa guk geuk atontzea gogoan dut. Ez zegoen kotxe askorik, baina kotxeak gelditzera behartzen genituen! "La Teja" zonaldean, La Landan, eliza aurrean, gaur egun Batzokia dagoen eremuan...

Eta zelan heldu zinen Athleticera?

12-13 urterekin, lagunak Zorrotzako Ekintza Katolikoaren futbol talde batean jokatzeko hasi ginen, zaletasunez. Bilboko institutuan hasi nintzenez eskola arteko txapelketetan ere hasi nintzen. Eta holako batean Firestone lantegiko futbol taldean jokatzeko zuten laguna eta jokalarik bikaina etorri zitzaizkidan galdezka ea berarekin batera Firestone gazte taldera joan nahi nuen, federatua... Proba egin, eta bertan hasi nintzen. Gazte maila bukatu ostean, ez zegoen nagusien talderik, eta libre nengoan edozein klubekin fitxatzeko. Eta Athletic etorri zen nire bila. 18 urterekin Firestonekin zuzenean Athleticera egin nuen jauzi. Real Madrid ere atzetik izan nuen, baina aitak Bilbon geratzea nahi zuten ikasten jarrai nezan.

Aldaketa handia suposatu zuten zuretzat Athletic futbol taldean aritzea?

Kobratu nuen lehenengo fitxarekin diruarekin etxebizitza bat erosi nien gurasoei Fray Juan kalean, erdialdean. La Teja aldean bizi nintzen Athleticen hasi nintzen arte. Hor bizi nintzen guraso, aitite-amonak, eta osaba-izekoekin. Familia xume batean jaio nintzen, eta ikasi ahal izateko 9 urterekin beka bat lortu nuen. Athleticera sartu nintzenez ingeniari-tza ikasten hasi nintzen, eta Athleticen profesional aritu nintzen ikasketak uzartzeko nire bitartean. Harrotasunez esan dezaket futboleko profesionalki aritu nintzen bitartean ingeniari-tza ikasketak bukatu nituela.

“ Athleticen kobratu nuen lehenengo fitxarekin diruarekin etxebizitza bat erosi nien gurasoei Fray Juan kalean, erdialdean ”

Beraz garai horretan ere, futboleko aritzea ondo ordainduta zegoen...

Beno, ez zen gaur egun bezalakoa, baina ondo ordaintzen zuten orduan ere. Gaur egun bezala, futbolari bikainak zirenek, garaiko "Messi"ek, Di Stefanok adibidez, diru asko kobratzen zuten. Fitxari soldata gehitu behar zitzaion, eta baita irabazteagatik genituen primak ere. Eroso bizitzeko eta aurretiko beste ematen zuten, bai.

Athleticen historian sartu zinen klubeko 2000. gola sartzeagatik. Gogoratzen duzu?

Bai, baina ez zelan sartu nuen... Valladoliden aurka izan zen, kanpoan. Lehenengo mailan ni ez nintzen golegilea. Zelai erdian, eskuineko barnekoan jokatzeko nuen. Gol hori sartzeagatik trofeo erraldoia eman zidaten, eta lotsa apur batekin jaso nuen... Txantxetan esaten nien lagunei: nola liteke horrelako trofeo bat niri ematea Zarra edo beste batzuei eman beharrean!

“ Trofeo erraldoia eman zidaten Athleticen 2000. gola sartzeagatik. Txantxetan esaten nuen: nola liteke horrelako trofoea niri ematea Zarra edo beste batzuei eman beharrean! ”

Eguneko futbolak eta zure garaikoak antzekotasunik al dute?

Ez dute zer ikusirik. Ezberdintasun nagusia prestaketa fisikoa da. Prestaketa-fisikorik ezean, teknika handia behar da, eta oro har, lehen teknika handiagoa zegoen nire ustez. Futbol partida bakoitzean hiru kilo argaltzen genituen gutxi gora-behera. Iganeko arratsaldean jokatu, astelehenean jai-eguna genuen eta asteartean, asteko lehenengo entrenamendua. Gehienetan ez genuen ezta



aurreko pisua geureganatzen egun horretarako, eta gaur egun, astearteetan goi mailako beste partida bat izan dezaket. Beste ezberdintasun oso nabaria: elikadura eta nutrizioa. Egungo banakako entrenamendu pertsonalizatuak... Pentsaezina zen hori: lehen guztiok egiten genituen ariketa berdinak!

Eta sozialki? Ezberdina zen baita ere?

Beno, futbola eta Athletic ezberdinduko nituzke. Athletic betidanik ezberdina izan da. Bertan egonda ala ez, Athleticzalea nintzen, bainaiz eta izango naiz, eta sentimendu hori ez baduzu, ezin da ulertu. Dena den, Athleticeko jokalaria oso ongi ikusia egon da beti, eta ez dago Bilboko zalegoa bezalakorik. Etxeko jendeak hornitzen da taldea, eta jendeak pazientziatziaz hartzen du jokalaria bilakaera... Hori beste taldeetan ez da gertatzen.

Athleticen bizitako oroitzapenik ederrena?

Ba futbolari izandako oroitzapenik ederrena, Athleticen baino, agian Firestonen daukat. Ahaztezina. Lagun kuadrilla bat ginen futbol bikaina egiten. Espainiako txapeldun atera ginen txintik ere kobratu gabe! Profesionaletan jada jarrera ezberdina zen. 18 urterekin heldu nintzen Orue, Carmelo, Mauri, Maguregi, Garai, Artetxe... bezalako futbolariak osatzen zuten talde batera. Liga eta Kopako txapelduak ziren, ni baino hamar urte nagusiagoak... Lehendabizikoz haiekin entrenatzera heldu nintzen eguna gogoratzen dut: Artetxe etorri zen nigana agurtzera, eta nik "jauna" esan nion. Berak kideak ginela aurpegiratu zidan, eta berriro holan ez esateko... Baina niretzat idoloak ziren!

Nolakoak ziren entrenamenduak? Zein zen zure eguneroko ohitura?

Goizeko 8etan klasera joaten nintzen ingeniari-tza eskolara. San Mames alboan neukan, salto batean, 10etan entrenamendurako prest nengoen. Eguerdian etxera bazkaltzera, siestatxo bat bota eta arratsalde, berriro ikastera.

Athleticen 6 urtez egon ostean, 1961etik 1966ra, Sabadell Club de Fútbol en ere aritu zinen hiru denboraldiz. Nola suertatu zen hori?

Ba kontratua bukatu ostean, Athleticek ez zuen luzatu nahi izan. Nik futboleko jarraitu nahi nuen, baina ikasketak alboratu gabe. Beraz, ingeniari-tza eskola zegoen toki bat aukeratu behar nuen. Bartzelonan Sabadellen aritzeko aukera hori atera zitzaidan hiru urtez, eta bertara joan nintzen. Kontratu hori bukatu zen urtan, ikasketak ere bukatu nituen. Eta futbol profesionalean aritzeari utzi nion. Sevillak ni fitxatzeko saiakeretan zegoela esan zidan entrenatzaileak, baina nik oso argi neukan: hortik aurrera nire lanbidea izango zen arloan lanean hasi behar nuen ikasketak bukatu ostean.

Eta orduan zure beste ogibidean hasi zinen.

Bai, ingeniari industrial lanetan. Zorrotzara bueltatu nintzen nire emaztearekin, Zorrotzara bera ere, gazte-gaztetatik bikotekideak baikin emaztea eta biok. Algortan urte

batzuk eman genituen, Gasteizera etortzeko esan zidaten arte, eta hemen oso gustura eman ditugu berrogei urte baino gehiago. Baina bertako lana atera baino lehen, Gipuzkoan aritu nintzen urte batzuek makina-erreminta enpresa batean. Geroago Bilbon ingeniari enpresa batean, eta forjaketaren enpresa batean zuzendari industrial lanetan ere bai.

Eta gaur egun, futbolzalea zara?

Bai, banaiz, baina gero eta gutxiago. Askotan aspertzen nau futbolak. Eta bestetik, gustuko ez ditudan hainbat gauza nabariak dira egungo futbolean. Dirua da nagusi, eta futbolak zeukan garbitasuna galdu da profesional mailan.

Eta Athleticzalea?

Bai. Pasio handiz. Handiegiz agian. Bazkide izanda, San Mamesera joateari utzi behar izan nion. Alde batetik ez nuelako onartzen ikusleak jokalarien kontra aritzea. Eta bestetik, oso urduri jartzen nintzen. Telebistan ikustea ere zaila egiten zait... Partida aldan gora badoa, komeriak! Ezin ikusi, dudan pasioagatik... Athletic betidanik berezia eta ezberdina izan da. Futbolari indartsu eta keimentsuak, eta azken bolada honetan gauza handiak lortu ditu taldeak, besteek ez dituzten zailtasun handiagoeekin gainera. Ezin zaio txapeldun geratzea eskatu, nahiz eta nire us-tez arrakasta berriak etorriko diren. Tituluren bat ere bai, zergatik ez? Hori bai, filosofiari eutsi behar zaio eta etxeko jendearekin jokatu. Orain arte beharrezkoa izan ez dena, ez da beharrezkoa izango etorkizunean.



LABURREAN

Gustuko duzun futbolari bat?

Jose Mari Orue, baina subjetea naiz, zorrotz eta lehengusua zelako. Fidel Uriarte eta Txetxu Rojo aipatu behar, baina Iribar bezalakorik ez da egongo.

Entrenatzaile bat?

Firestonen nire entrenatzaile izan zena: Rufino Gamboa. Gaur egun, Pep Guardiola, zalantzarik gabe.

Futbol zelai bat?

Santiago Bernabeú jokatzek izutzen du. Camp Nou, are gehiago. Baina dudarik ez: San Mamés.

Gehien gogorutzen duzun partida?

Firestonekin gazte mailan jokaturako bi final: bata San Mamesen Durangoko Culturalaren aurka; eta bestea Espainiko txapelketako finala Madrilera Santiago Bernabeú Murtziaren aurka. Biak irabazita. Eta Athleticen, Bartzelonaren aurka San Mamesen jokaturako bat. 2-0 irabazi genien, eta ondo merezita.

Afariak ostirala eta larunbatetan
Etxeko berezitasuna:
katxopoa.

Telefona: 944 415 416
Zorrotzabaso, 13
ZAZPI LANDA

ARIN GRAF, S.L.
INPRENTA

Zalbidea estrata, 13-2.
48013 ZORROTZA - Bilbo
Tel/Fax: 94 441 38 23
info@aringraf.com

Lápicos
LIBURVDENDA

Untziola kalea, 8
ZORROTZA

Otsailak 4 asteartea

IKUSI ETA IKASI familia eta gaztetzako kultur programa

18:00 Basurtuko Udaltzegan
(Zankoeta, 1. Basurtu)

Antzerkia:

IRRIEN LAGUNAK: Martinbertso.

Otsailak 15 larunbata

IKUSI ETA IKASI familia eta gaztetzako kultur programa

12:00 Zorrotzako Udaltzegan
Magia:

HODEI MAGOA: Tutti magia.



Otsailak 19 asteazkena

IKUSI ETA IKASI familia eta gaztetzako kultur programa

18:00 Basurtuko Udaltzegan
(Zankoeta, 1. Basurtu)

Saio musikala:

HALA DZIPO: Dilin dalan.

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko hurrengo agendan (martxo-a-apirila) iragartzeko, zmorrotz@gmail.com helbidera idatzi otsailaren 17a baino lehen.

Olagarroa patatekin



Osagaiak: olagarroa, patatak, olio, gatza eta piperrautsa.

Lehenik, eltze azkar batean 2 goilarakada oliorekin jarriko dugu sutan olagarroa. Patatak egosi behar ditugu, eta ondoren zuritu eta xerratu hartzaren lodieran. Platerean patatak jarri, eta bere gainean olagarroa zaituta botako dugu.

Bukatzeke, gainetik olio, gatza eta piperrautsarekin ondu behar dugu.

Zailtasun maila: Ertaina.

BASARRI TABERNA


Ordutegia: astelehenetik-igandera: 8:00 - 23:00
Zorrotza kastrexana errepeidea, 10





Kabitu ezina

Aintzane Usandizaga López / Pili Aguado Sierra.
Elkar. 2019. 120 orrialde.



Lagun guztiak oporretan, eta haietako batek utzitako txakurra zaintzen pasa behar du uda Judithek; ama hil-hurren dagoela-eta, hiru neba-arrebek egingo dute topo aspaldiko partez, eta haien arteko ezinegonak azalduko dira berriz ere; bikote baten bidaia zoragariaren erdian, ezusteko txiki bat amildegi bihurtzen joango da, ezinbestez... Zortzi istorio idatzi ditu Aintzane Usandizagak bere lehenengo liburu honetan; egunerokotasun grisean zirrikituak eta giza harremanetan arrakalak bilatzen dituzten ipuinak, jendeai eta egoei begirada zorrotz eta sakona eskaintzen dakitenak,

agerikotik harago doazenak; hitz zehatzarekin asmatzen duten kontakizunak, zaurian hatza sartzen duenaren trebeziak eta ausardiaz.



Saia Goait:

Saia Goait (Rock CD Records) 2019



Erne dagoen putrea hegaldia noiz hartuko zain. Halaxe definitzen du bere burua Mutrikun sortutako Saia Goait laukoteak. Hainbat taldetan ibilitako musikariak 2018an elkartu eta iazko udazkenean euren lehenengo lana argitaratu zuten, azkenengo Durangoko Azokan harrera ezinhobea izan dutelarik. Ahotsenean ikusteko aukera izan nuen eta energiaz beteriko zuzeneko eskaini zuten, ikusleen artean

zapore oso ona utzita. Aitortu behar dut taula gainean ikusi aurretik "Abiadan" izeneko single-a bakarrik entzuteko aukera izan nuela eta asko gustatu zitzaidanez pentsatu gabe azoka alboan dagoen karpura hurbildu nintzen. Bertan entzun eta ikusitakoak beraien diskari buruz hitz egitera animatu ninduen.

Estreinako lan honek 6 abestiz osatuta dago, intro eta guzti. Energiakz beteriko rocka lantzen dute, pasarte gogor eta melodikoak ederkir nahastuz. Erraz entzun daitekeen lan baten aurrean gaudela esan daiteke eta zuzenean ikusi ondoren nabaria da eskarmentua dutela egiten duten honetan. Aukera izanez gero, euren lana entzun eta batez ere taula gainean ikusteko gonbitea luzatzen dizuet, bai horixe!

Ibai Barrios

Doinua:
Zonbat pertsu alde

Urte berri asmo berri
ari eta ari

hogeiak zer emango
gure bizitzari?

desioak desio
jardun ameslari
beldur barik aurrera
saiatze sari
entzuna izatea
bada nahiko opari
Zorionik beroenak
irakurleari

Asier Urkiza

**Bar
basarri**

**PINTXO
ASKOTARIKOAK**

Zorrotza Kastrexana
errepidea 10
48013, Zorrotza

Iragar zaitez

ZM

ZORROTZ MORROTZ
aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!

Tarifak eta informazioa:
zmorrotz@gmail.com



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidalguzu zure artikulua zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarrita. Eskerrik asko!



Urte berri

Ezinezkoa da gaiari itzuri egitea.

Huraxe da garai honetako

artikulu eta abarren gai nagusia.

Urte zaharra eta urte berria.

Lehenengoak utzitakoa eta

bigarrenak ekarriko duena. Urte

bateko gabeziak besteak estali

zain. Esperantza berrituak, asmo

asmotsuegiak, aldaketa nahi

baino txikiagoak...

Urte berria indarrez sartu da gure bizitzetan, nahi eta ezinei neurria hartzeko tartarik utzi gabe. Beste urte batzuetan bezala, gurari nahaspila bat kudeatu beharra dago, lauso bezain zentzugabea. Eta zure burua aurkituko duzu taberna ilun batean, tragoa eskuan. Eta hitz egingo duzu, oihukatuko duzu, ondo pasatuko duzu. Biharrean, urte berrian gehiegi pentsatu gabe, etorkizunarekiko nagikeriaz.

Hurrengo goizean esnatu eta ez duzu al daketarik igarriko. Denak utzitako lekuan darrai, ez du ematen urte berriaren uholdeak faltan botatzeko moduko ezer berekin eraman duenik. Bazkaria hala-hola joango da, janari gehiegi alkoholez betetako sabel sufriturako. Arratsalde luzea, pisutsua, modu ezdeusean igaroa. Urte berriko asmoak dagoeneko erdi ahaztuak, beharrezko ez direlakoan, lehengo lepotik burua jarraitzen baitu guztiak. Gaua edonola pasa eta laster lotara, izara oraindik deseginen epeltasun ezegonkorrera.

Urtarrilak 2 ditu hau idazteko momentuan. Urte berria ote den ez dakizu, baina zerbait hata botatzen dizu garondoan. Gauza pisutsenek ez dute zaratarik egiten haustean. Zerbait hautsi da, urte berria hautsi da. Hutsune handi bat nabaritu duzu airean eta kapaza izan ez asmo berriez betetzeko. Hutsunearekin moldatu behar. Hutsuneak horretarako daude-eta, betetzeko.

Orri zuria parez pare begiratu duzu. Hatza-marrak teklatura hurbildu dira, imintzio dardaratiak. Lehenengo letra jo duzu, oraindik osatuko den hitzaz ezjakin. Lehenengo ezarri eta joango da gainerakoa josten. Josi ahala josten. Haria, titareak eta jostorrazak. Horrela ehunten da urte berria.

Asier Urkiza

Jai-Alai
kafetegia



Abaro estrata, 12
94 490 12 59

Iragar zaitez



ZORROTZ MORROTZ
aldizkarian!

Euskara sustatu
Zorrotzan!



Tarifak eta informazioa: zmorrotz@gmail.com

ROCKET
TAVERN



Plater konbinatuak,
hanburesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA



Andu Lertxundik idatzitako zutabe honekin hasiko gara ("Ariketa", Berria, 2008-6-25):

Taxi bat hartu behar izan dut. Agurren ondoren, liburu bat zabaldu dut, gidaria ez baitzen batere hiztuna. Handik pixka batera, taxiko telefonoak jo du. Gidariak esku libreko telefono-sistema aktibatuta du. "Barkatu, kariño, lan garaian deitzea, baina disgustu handia daukat. Ikerrek dena suspenditu du", esan du telefonoaren beste aldekoak. "Zerbait pentsatu beharko dugu, zuri zer iruditzen zaizu?", erantsi du. Gidariari zer iruditzen zaion, auskalo, isilik segitzen baitu. "Hitzordu bat eskatu dut irakasleekin bihar arratsalderako" esan dio

telefonoaren beste aldekoak, eta gidariak ahoa zabaldu du estreinakoz: "Bihar arratsaldean? Ezin dut".

Irakurle: egingo nuke emakumetzat hartu duzula dei egilea, gizona ez gizona, baina nik ez dizut horrelakorik markatu.

Anduk esan bezala, nahiz eta testu eta elkarrizketetan pertsonen generoa zehazten ez den, guztiek gure baitan genero jakin bat egozten diogu istorioko pertsonaia bakoitzari. Generoarekiko inertiak ditugu eta, oro har, baldin ez badakigu pertsona zein generotakoa den, gizon moduan irudikatzen dugu edo historikoki genero bakoitzak egin duen lanbidearekin lotzen dugu.

SALAKETA ARGAZKIA



Zubian ez da inoiz ateri

Gure auzoa Burtzeñarekin lotzen duen zubian ez da inoiz ateri. Urteak daramatzagu estalki baten zain, haize eta euriaz babesteko. Aurten Olentzerok ekarri ez digunez, noizbait zain egoteari utzi beharko genioke.

**EUSKAL
PRESO ETA
IHESLARIAK**



ETXERA

**GORA
HERRIA!**

**★ independentzia!
SOZIALISMOA!**



ASKABIDE
kultur elkartea
ZORROTZA

Inurriak eta ostruka

Auzoan, Zorrotzan, lau ikastetxe publiko badaude, zergatik egunero ilara amaiezinak Burtzeñako zubia itunpeko ikastetxeetaraino?

Egunero, zortzi eta erdietatik aurrera, “inurrien” ilara amaiezinak Burtzeñako zubia zeharkatzen du. Eskumaldeko espaloitik uniforna jantzita; ezkerralde, ordea, bakoitza bere kontura. Lehenago, zazprietatik aurrera, Zorrotzako bus geltokietan hainbat eskola-autobusek “zama” batzen dute. Inurriak eta zama aipetzerakoan ez da mespretxuzko hizkerarik, metafora polita baizik. Eta metaforek, beti, oso ondo islatzen dute edota azpimarrazten dute esan nahi duguna... Tira, harira! Ehundaka ikasle auzotik kanpora joaten dira ikastera oinarritzko irakaskuntzan. Ikastetxe pribatuetara esango nuke, baina doitasun faltarik ez leporatzeko, itunpeko ikastetxeetara joaten direla ahopeka esango dut.

Ene! Auzoan, Zorrotzan, lau ikastetxe publiko badaude, zergatik horrelako ihesaldirik? Goian, Haurreskola eta Zazpilandako eskola; beheago, Zorrotza Fray Juan eskola; azkenean, beheko Institutua. Beraz, eskaintza publiko osoa baldin badago, 0 urteik 16 urtera arte, zergatik gertatzen da hau?

Badaude erantzun ezberdinak. Baliteke esatea Euskal Autonomia Erkidegoan historikoki horrelako banaketa finkoa eman dela. Hori gertatu/bultzatu izan da beti, Hezkuntza Sailean EA, PSE edo EAJ egon arren. 2019-2020 ikasturteko matrikularen arabera*, hauek dira datuak:

	Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	DBH
Publikoa	%52,39	%51,89	%46,53
Pribatua	%47,60	%48,10	%53,46

Nafarroan, irakaskuntza publikoa %65etan kokatzen da. Iparraldean, %70etan. Belgikan eta Holandan izan ezik, Europako estatuetan irakaskuntza publikoko datuak oso altuak dira (Lehen Hezkuntzan %85etatik gora; Bigarren Hezkuntzan, %70etatik gora).

Gure auzoan, zoritxarrez, datuak oso esanguratsuak dira. Zorrotzako jaiotzak kontuan izanda, Fray Juan eta Zazpilandako 2 urteko geletan matrikulaturik dauden ikasleen ehunekoak hauexek dira:
2015-2016 ikasturtean: %45,57
2018-2019 ikasturtean: %42

2017 urtean 84 ume jaiotzen ziren Zorrotzan. Hauetariko zenbat daude Zorrotzako 2 urteetako geletan? Ikaratzeko erantzuna dugu. Galdetu Zazpilanda eta Zorrotza Fray Juan eskoletan.

Gai hau aztertzeke beste erantzun bat dago, hurbilagoa dena: irakaskuntza publikoaren narriadura; are gehiago, ghetto bihurtzearen prozesua... Honi aurre egiteko “Bilboko Euskal Eskola Publikoaren Plataforma” sortu da. Aspaldidanik ibili dira elkarte antolatzen, koordinazioa lantzen, agiriak argitaratzen... Azken bi hilabete hauetan atxikimenduak biltzen ari dira. Bilboko ikastetxe askok bat egin dute BEEP Plataformarekin. Zorrotzan, momentuz, inork ez: ez ikastetxeek, ez eskola kontseiluek, ez klustroek, ez gurasoen elkarteek...

Publikoa-pribatua dikotomia ulertzeko (Zorrotzan behintzat), beste azalpen bat dago, balizko erantzuna hain zuzen ere: ostrukarena. Gure auzoan datuak txarrak badira, lasai, ez kezkatu... Bilbon Euskal Eskola Publikoaren defentsarako ekimena abiatu bada, zertarako atxikitu? Zertarako horren alde borrokatu?

Hobe da Genevara joatea gure arrakasta saltzera! Oso mingarria iruditzen bazaizu nire iritzi hau, prest nago eztabaidatzeko. Zabal dezagun eskatima!

* http://www.euskadi.eus/web01a2hestat/eu/contenidos/informacion/matricula_2019_2020/eu_def/index.shtml

Pasa den abenduan Auzoka Komunitate Zentroaren bigarren urteurrena ospatu genuen

Gezurra dirudien arren, bi urte pasa dira Auzokak atek zabaldu zituenetik; auzoko erakunde sozialen eta talde formalen proposamenei erantzuteko jaino zen, komunitatearen ongizatea sustatzen duten ekimenak berean hartzeko.

Bi urte hauetan, ekintza eta programazio desberdinak izan ditugu: batzuk egonkorrak, beste batzuk aldizkakoak; denak auzotik sortuak, gure talde eta elkarteek antolatutakoak eta auzokide guztiei zuzendutakoak.

Parte-hartze datu oso positiboekin, Talde Komunitarioak ilusioz eta atsegin handiz jarraitzen du Auzokaren hurrengo pausok diseinatzen eta oraindik gurera gerturatu ez diren auzokideak gonbidatzen ditugu lokalak eta proiektua ezagutzera hurbildu daitezzen.

Hau guztia ospatzeko, pasaden abenduarren 13an, Auzokaren urteurren jaina antolatu genuen. Hemen bertan egiten diren ekintzei buruzko argazki eta sormen tailerretan sortutako lanen erakusketa izan genuen. On-



doren, antzerki arineko 3 lanen ikustaldia eta auzoko musikariek prestaturiko saioarekin disfrutatu genuen, hori dena edari eta pintxo goxoak dastatzen genituen bitartean.

Indarrez, gogotsu eta ilusioarekin urte berria hasten dugu, komunitate lanaz auzokide guztiek parte hartzeko aukerak sustatuz!!

 GURELURRA
elkartea
KOMUNITATEAREN ERAKUNDEA



FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfno. 94 441 61 46



Vía gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

DisiNua



Asier

Nik guztiz gustuko ditut: petardorik gabe, ez dago Gabonik.



Sonia

Neurrian erabiltzen direnean, gustuko ditut. Baina ume txikiak ez litzukete erabili behar, eta honetarako kontrol nahikorik ez dagoela uste dut.

Petardoak Gabonetan:

Erabilera mugatu beharko litzatekeela uste duzu?

Iratze Pérez



Ainara

Nik erabilera leku zehatz batera mugatuko nuke, txakur eta umeak dituztenek, hortik ez pasatzeko aukera izateko.



Diego eta Mikel

Jendeak kontu eta kontzientzia hangiagoaz erabili beharko litzuketela uste dut. Agian, udalak kontzientziario kanpaina bat egin lezake eta nahikoa ez balitz, erabilera mugatu.



Aroa

Nigatik ez dago arazorik baina ume eta txakurrei txarto egiten dietenez, petardoen erabilera leku zehatz batera mugatzea ondo irudituko litzaidake.



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

AUTO ESKOLA
KAIKU



Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfn: 94 427 88 10



MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbitza estazio, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

Tel. 94 441 62 75



euskara praktikoa

2020ko udako barnetegiak: datak

EUSKALDUNTZE BARNETEGIAK (Hego Euskal Herrian) (A2, B1, B2, C1)

- Uztailaren 6tik 19ra
- Uztailaren 20tik abuztuaren 2ra
(A2 maila hamabostaldi honetan eskainiko da)
- Abuztuaren 3tik 16ra
- Abuztuaren 17tik 30era
(Hamabostaldi honetan ere B2 eta C1 mailak egiaztatzeko azterketa prestatzeko barnetegiak eskainiko dira)
- Abuztuaren 31tik irailaren 13ra

EUSKALDUNTZE BARNETEGIA (Ipar Euskal Herrian-Urepele, A1, A2, B1, B2, C1)

- Uztailaren 13tik 24ra
- Uztailaren 27tik abuztuaren 7ra

FAMILIA BARNETEGIA (B1, B2, C1)

- Uztailaren 6tik 17ra
- Uztailaren 20tik 31ra
- Abuztuaren 3tik 14ra

XIBERERA BARNETEGIA

- Uztailaren 27tik abuztuaren 1era

“ ... euskara entzungo den leku batera joateko, bertan euskaraz egiteko, bertakoekin zein ikaskideekin, eta euskaraz hainbat gauza egiteko.

Gainera, hori guztia leku ederrean eta giro paregabean. Barnetegia da hori, euskara ikasteko lekurik onenetakoa”

ADI:

UDAKO MATRIKULAZIOA

izena-ematea, prezioak, ordainketa egiteko epea, argibideak jasotzeko epea...- **apirilean hasiko da**; bitartean, informazioa eskuratzeko, jo beheko e-postara edo telefono-zenbakietara.

www.aek.eus


673 200 100 - 946 464 000

udabarnetegiak@aek.eus

2020ko OTSAILA MARTXOA APIRILA MAIATZA

KUSI ETA KASI

• FAMILIAN EUSKARAZ GOZATU •



4-8
urte

LAGUN
ARTEAN

Tailerretan parte hartzeko derrigorrezko da aurretik izena ematea www.ikusietaikasi.eus gunean aurkituko duzuen izena-emateko fitxa betez.

IZENA EMATEKO EPEA:
URTARRILAREN 13TIK 26RA

8-10
urte




euskaltzaleen
topagunea

B
Bilbao